



Fernando
Muniozguren
Urkiola

1950-2006

BIDeGILEAK

Egilea:

Iñaki Arruti



FERNANDO MUNIOZGUREN URKIOLA

(1950-2006)

Eibartik Parisera

Bidegilea izan zen Fernando Muniozguren. Agian, «bide(era)gilea» izan zela esanaz definituko genuke hobeto.

Bidaiaria ere izan zen eta, euskararen bidegile gehientsuenek bezalatsu, bere bidea egin zuen, bere garaiak eskaini zizkion bideetako bat, ez agian garaikoen artean ohikoena, bai, ordea, berea. Mendizalea zen Fernando, baina zeharbideak eta bidezidorrak gustukoago izan zituen erre-pide nagusiak baino.

Haren bidea 1950. urteko abenduaren zazpian abiatu zen Eibarren. Joan Mu-

niozguren eta Iñaxi Urkiolaren semea, seme zaharrena. Bost urte bete aurretik, aitarik gabe geratu ziren Fernando eta haren anaia Karlos. Iñaxiren bigarren senar izan zen Manuel Plazaolaren semea da Sabino, anaietan gazteena.

Eibarko Urki auzoan bizitu zen Fernando. Hala ere, oso maitea ez zuen garaiko eskola *nacionalean* oporrak ematen zizkiotenean, bizkor alde egiten zuen Oiz azpiko Ganbe baserrira, lehengusuekin eta animaliekin olgetan egitera. Beti izan zuen naturarekiko erakarmen eta sentiberatasun hura, agian, txikitako urte



Fernando umetan



Amarekin eta anaia Karlosekin



Fernando argazkiaren erdian, baserrian

haietan Munitibarko inguruetan bizitukoen ondorio izan zitekeen. Aita (Iporla baserrikoa) eta ama (Garinduaga baserrikoa), biak zituen munitibartarrak.

Ez zen ikasle ona izan Fernando, ez eskola *nacionalean*, are gutxiago fraideen eskolan. Edo, agian, eskola ez zen ona izan Fernandorekin. Nondik begiratzeko den kontua. Adierazgarria, edozein kasutan, bai diziplinarekin eta bai bereziki erlijioarekin ere izan zuen talka. Gerora ere ez zen Fernando aginduak



Fernando eskolan

bete zale izan, eta ez zuen erlijioa bi-
delagun sentitu. Fraideek «ateo» dei-
tzen omen zioten, eta hori, burla izan
ordez, bere identitatearen ezaugarria
izan zuen, dirudienez, txiki-txikitatik.

Gustukoagoak zituen nonbait boletan
egitea eta txoriak harrapatzen ibiltzea.
Bietan ere nabarmendu zen punteria one-
ko gaztetxoa.

Etxean saiatu ziren «eskola armerixan»
ikasten jarrai zezan, baina bere iritzian
alferreko lana zen hori, eta liburuak saldu
eta eskola utzi zuen 17 urte inguru zituela.
Haren amak dio, eta hala izango zen, «ha-
rek eskuak mantxau barik» ibili nahi omen
zuen eta, horretarako, «burua astintzen

eban». Baserriko bisitaldietan ere kortako
lanetan aritzea baino nahiago omen zuen
animaliak hartu eta mendira joan («man-
txau» barik eta burua astinduz).

Eskola utzi eta zerbait egin behar, eta
«biharrian hasi zan tallerrian, trokelista».
Bizpahiru urtez tailerreko lanean ibili
zen, beraz, baina bidegurutze berri bate-
ra hurbiltzen ari zen Fernando. «Biharra
ta biharra» besterik ez zegoela Eibarren,
eta handik ateratzeko pentsamendua gai-
na hartzen hasi zitzaion.

Ohiko bidea beste bat bazen ere (estudia-
tzea lan egiteko), akademia batean inge-
lesa ikasi (Eibarko eskola guztietan fran-
tsesa ikasten zen orduan), garaiko musika
modernoak entzun (Deep Purple...), ile eta



Fernando boletan egiten



Fernando hippy garaian, Ibizan

bizar luzeak utzi..., hippy sentitzen zen Fernando eta hippy bizi zen.

Hippy onen modura, bere munduan sartuta gogoratzen dute ingurukoek, orduak eta orduak pasatzen omen zituen egunerokoa edo diarioa eta poesia idazten. Garaiko hippyen joerari jarraituz, bizpahiru uda ere pasatu zituen Sitgesen eta Ibizan. Han ezagutu zuen Pili Iburguren, bere emazte izango zena.

Transgresore sentitzen zen eta transgresore bizi zen, bai eskolan, bai fraideekin, bai lanean ere. Bizitza guztian errutina horretan aritzea ez zen bere buruan kabitzen eta burua ateratzen hasi zen habiatik.

Berak aukeratutako bidean, ordea, parentesi handi bat egitera derrigortuta egon zen. Garaiko legeak agintzen zuen modura, adina iritsi zitzaionean, soldaduskara joan beharra izan zuen. Saha-

ran egon zen soldadu, Aiunen. Txikitako punteria onak kabo egiteko eta kalez jantzita eta ilea gehiegi moztu gabe aireportuko aduanan lan egiteko balio izan zion. Berez zen Fernando azeri samarra eta, estudiorik gabe, baina ikasketa handiak eginda bueltatu zen soldaduskatik Euskal Herrira. Nahiz eta behar izan ez, etxetik



Fernando *petatea* hartuta soldaduskarako bidean

dirua bidaltzeko eskatu ohi zuen, han beste era batera lortzen zuena justifikatu ahal izateko!

Saharatik bueltan, ez zuen denbora askorik pasatu Eibarren. Erabakita zeukan mundua ikusi behar zuela, eta Londresera abiatu zen, bertan zituen lagunekin bizi eta ingelesa hobeto ikastera. Bidean, ordea, Parisen egin zuen geldialdia. Pili han zegoen *au pair*. Biak saiatu ziren Londresera sartzen, baina ez zieten utzi. Garai hartan, Erresuma Batura sartzeko dirua eta destino legalizatuak behar ziren, eta Fernandok, berriz, lagun hippyak zituen helmuga eta joandako tokitik berriz ere Parisera itzuli behar izan zuten biek.



Fernando aduanako polizia-lanetan, kalez jantzeko baimenarekin

PARIS

68ko maiatza igarota zegoen ordurako, baina haren oihartzuna gertu zegoen oraindik. 1973. urtea zen Londresera ezin joanda eta Euskal Herrira itzultzeko asmorik gabe Fernando Parisen gelditu zenean. Ez frankorik eta ez frantsesik. Iraultzarik ez zen, baina bere bidea behintzat han irauli zen.

Askatasun giroak erakarrita, umetan egin ez zuena egiten hasi zen: ikasi. Egunero bizi beharrak eraginda, koskorxeagotan egin nahi izan ez zuena egin behar izan zuen: lana.

Frantsesa ikasi zuen institutu katolikoan, eta Vincennes-eko unibertsitatean filosofiako ikasketak egin zituen. Bitartean, Parisko hoteletan lan eginez atera zuen bizimodua. Bi udatan ere egin zuen Euskal Herrirako joan-etorria (autostopean, noski). Uda batean pinuak botatzen lan egin zuen Bergaran, eta bigarreanean, aldiz, peontza lanetan ibili zen autopista eraikitzen, Erreterria inguruan.

Parisko Euskal Etxera ere inguratu zen Fernando, bizar eta ile luzearekin, kaikua



Fernando Vincenneseko unibertsitateko ikaslearen karnetea

eta txapela soinean zituela. Euskaldun gehiagorekin egin zuen topo bertan. Han, Parisen, atera zuen euskarako D titulua ere.

Fernandoren mundua ikusteko egarriak, ordea, izan zuen non ase Parisen. Bete-betean sartu zen ikasketen munduan. Eibarren liburuak saldu egin bazituen, Parisen, erosi ezinean, lapurtu. Ez zen kasualitatea, Vincenneseko unibertsitatea bera ere 68ko maiatzaren ondoren eta haren ondorioz sortutakoa zen, propio Pariseko kanpoaldean, periferian, eraikitakoa.

Filosofiako ikasketek harrapatu egin zuten, bai berak bilatu nahi zuen bizitzeko

zentzua ulertzeko moduak eskaintzen zizkiotelako, bai garai hartako irakasle izan ziren Gilles Deleuze, Jean-François Lyotard, Michel Foucault edo Françoise Chatelet bera ere oso erreferentzia indartsuak izan zirelako, edonorentzat ere. 68ko maiatzeko diskurtsoa eta izandako bizipenak transmititzen ari ziren irakasleak ziren. Haren ikaskide izan zen Atxuia azpeitiarrak dioen modura, «guretzako goxamenik handiena klase haietara joatea izaten zen». Mezuetan desberdinak ziren, eta formetan ere bai.

Giro, ikasketa eta bizipen haiek guztiek, iraultza bere zentzu klasikoan alboratuta bazuten ere, gizartea modu praktikoan aldatuz joateko gogoia piztu zizkioten. Aldaketarako tresna nagusia kultura zela ere, letra handiz idatzia, barneratu zuen. Lan kolektibo hori bideratzeko, ordea, berari garrantzitsuena iruditzen zitzaiona zen norberaren barruan zalantza eta eztabaida sortzeko gaitasuna izatea.

Euskal Herrira itzuli ondoren ezagutu zutenentzat, Fernandok bazuen filosofo ukitu bat. Ingurukoek ez bezala, bazuen gauzak pentsatzeko eta teoritik praktikara eramateko erraztasuna. Pentsatzeko zuen berezko joeraz gain, irakasle horiekin zuzenean jasotako formazioak eta bizipenek osatuko zuten seguruenik Fernando filosofo hori.

Besteak beste, Nietzscherengandik jasotako oinarriek, Deleuzeren «devenir minor» bezalako kontzeptuek, Pierre Clastre antropologoaren herri indigenen antolatzeke era ez hierarkikoak, errizomatikoak... eta sei-zazpi urteko bizipen sakonek arrasto handia utzi ziotela esatea baino, uste dut egokiagoa dela esatea Fernando desberdin bat osatu zutela. Eibartik poesiak idatziz mundua ikustera joan zen hartatik oso desberdina.

Bere buruan eta bihotzean euskara berreskuratzeko eta Euskal Herria herri bezala osatzeko lan egin nahi zuela itzuli zen Euskal Herrira 1979an.



Paristik Eibarrera

Fernando Zestoako barnetegian irakasleak
euskalduntzeko lanetan, 1983-84 ikasturtean


Eibarrera etortzearekin bat hasi zen Fernando euskara-eskolak ematen. Alfako eskolan gaztetxoei eta AEK-n helduei. Pili emaztea ere Altsasuko ikas-tolan irakasle hasi eta hezkuntza-mun-duan murgildu zen. Bizi Orion eta aritu Euskal Herrian zehar, baina beti hanka bat etxean, Eibarren.

UNEDen magisterio egin, eta IRALEn hasi zen Fernando lanean, irakasleak euskalduntzen. Lehendabizi Gasteizen, gero Nuarben eta Zestoan, eta ondoren, hainbat urtez zuzendari, Zarauzko Monte Albertia egoitzan.

Euskara irakatsi nahiak bultzatuta, Adarra Pedagogia taldeak Iruñean antola-

tutako uda-ikastaro batean bere burua eskaini zien AISE taldekoei. Talde hori Elisabet Alba, Bittor Madina eta Xabier Arrutik osatu zuten hasieran, 1979. urte inguruan; ondoren erantsi zitzaizkien euskalgintzan ere ezagun eta bere lagun izandako Lukas Dorronsoro, Jon Etxabe, Antton Iztueta, Edurne Alustiza, Jon Elosegi eta Joxerra Alzelai ere. Guztiak ere garai hartan ikastetxe publikoetan oso gutxiengo txikia osatzen zuten irakasle euskaltzaleak.

Aise taldearen zeregin nagusia hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaera aldean Euskal Kontseilu Nagusiak eskoletarako martxan jarri zuen A ereduari



Fernando tartean zela Aise taldeak argitaratutako liburuak

erantzutea izan zen, gurasoak (tartean guraso euskaldunak ere) euskaraz ikas zitekeela konbentzitzeko lana eginez lehendabizi, eta hori egiteko ikasmateriala sortuz ondoren. Garai hartakoak dira euskara ikasteko metodo gisa erabiliak izan ziren *Aise*, *Aise 2* eta *Aise 3* (ikaslearen liburua eta irakaslearen gida-liburua) argitalpen arrakastatsuek eta jolasaren bidez euskara irakastea helburu zuen *Euskara jolasean jolasean jostatu* liburua. Baita *Kuku!* liburua ere, indartzen hasita zegoen B ereduan ingurumeneko gaiak euskaraz emateko prestatutakoa

azken hori. Garaiko irakasle askok go-goan izango dituzte ingurumari horretan sortu zituzten horma-irudiak ere. Lanorduz eta lanegunez kanpo musu-truk egindako lana eta euskara irakasten zihardutenek eskertua izan zen Aise taldearen lana.

Eguneroko lanetik kanpo aritu zen Fernando Aise taldearen barruan aipatutako argitalpen gehienetan parte hartzen eta garaiko beharrei erantzun nahian. Taldeko teoriko modura gogoratzen dute haren lankideek, praktika eta oina-



Fernando eta Ainitze



Pili eta Ainitze



rri teorikoak uztartzen egin zuen lanik handiena. Aise taldea 1986. urte inguruan desegin zen; alde batetik, A eredia nabarmen indarra galtzen hasi zelako eta B eredia, eta batez ere D eredia, indarra hartzen hasi zirelako, eta bestetik, geroztik ikasmateriala sortzeko izan diren bideak eta baliabideak beste batzuk izan direlako.

1986an Ainitze jaio zen, Pili eta Fernandoren alaba. Harrezkeroztik, Zarautzen bizi izan ziren hirurak.

EIBARKO UDALA

Herritar euskaltzale modura, 1982az geroztik kide finkoa zen Udaleko Euskarako-Batzordean. Garai hartan, herrian euskara sustatzeko zer egin behar zen eta Udalak hor zer parte zuen eztabaidatzen aritu zen Euskara-Batzordea. Udalak berak ere zer-nolako giza baliabideak behar zituen ere aztergai izan zuten eta, itzulzaile eta administrari plazaz gain, euskara-zerbitzuak euskara-teknikari bat behar zuela ondorioztatu zuten.

Fernando udaletxean lanean hasi berritan

Oposizioa egin eta Aurora Bascaran alkate zela hasi zen Fernando Eibarko Udaleko euskara-teknikari 1988ko irailaren 1ean. Lanpostu berean jarraitu zuen (bere azken urtea irakaskuntzara itzultita eman bazuen ere) 2005. urtera arte, 17 urtez.

Ia kontaezinak dira urte horietan egindako lanak. Lan txiki asko, lan isil asko, ikusten ez den lan asko. Lan-eremu asko izan ohi



«Euskaraz eta kitto» bandoa

ditu udal bateko euskara-teknikari batek, «euskara herrian sustatu» zakuaren barruan sar daitekeen ia edozer. Horretaz gain, lan horietatik gehienak talde-lanak izan ohi dira, eta hori ere oso kontuan izan beharrekoa da inori horrelako lanen jabetzak esleitzerakoan. Nolanahi ere, Fernando aritutako eta neurri handi batean berak zuzendutako lan-arlo batzuk nabarmen daitezke.

Udala. Eibarko Udala bere burua euskaldunduz joateko lana ez zen Fernandorekin hasi eta ez zen Fernando joatearekin amaitu. Lehenagotik ere eginda zeuden hainbat lan. Sinbolo bat bada ere, nabarmentzekoa da, Mikel Larrañaga alkate zela, 1982koa den euskararen aldeko bando ezaguna («...eta kitto!»).

Eibarko Udalak, gutxienez erkidegoko gainontzeko udal gehienek bezala, aurrera eraman ditu administrazioa euskalduntzeko Jaurlaritzak onetsitako araudiek eskatutako lanak. Bereziki, langile berriak kontratatzerakoan lanpostuen hizkuntza-eskakizunak kudeatuz eta jandak lanean ari ziren langileen kasuan, berriz, euskalduntzeko edota beren lanak

euskaraz egiteko trebakuntza-programak bideratuz.

Eibarko Udala euskalduntzeko planen ezaugarri nagusia, ordea, ez zen legalitatearekiko zorroztasuna edo prozeduraren zuzentasuna izan. Ez zen Fernando administrazioko ohiko teknikari bat izan, eta garrantzi gehiago ematen zion mamiari azalari baino, giroari prozedurari baino, emaitzei zuzentasunari baino.

Eskola. Bera Udalean hasi aurretik abiatutako lana baldin bazen ere, lan handia egin zuen euskara-zerbitzuak irakaskuntza euskalduntzen. Garai haietan, oraindik, ikastetxe publikoetan A eredia zen nagusi, eta bi mundu sortzen ari ziren ikastetxe publikoetako eta ikastolako umeen artean.

Ikastetxe guztietan egin zen ikerketa sakon batean oinarrituz eta beren haurrak elebidunak izan zitezten gogotsu zeuden guraso askoren bultzadaz, ekimen ugari egin zen ikastetxe publikoetan D eredia ezartzeko. Gabeziak handiak ziren, batez ere nahikoa irakasle euskaldun ez zegoelako, baina eskaera

handia zegoen, eta pixkana aseztu joan zen.

Astixa. Ikerketa horren emaitzetako bat izan zen ikastetxeetan egiten zen lanaz gain, beharrezkoa zela haurren aisialdian ere euskara erabiltzeko aukerak sortzea, eta hortik sortu zen *Astixaren* proiektua. Lehendabizi uda-sasoian herrian bertan *Oporrak afariketan* izenburupean aisialdiko eskaintza eginez, gero beste ekintza batzuk prestatuz (herritik kanpoko udalekuak...), eta azken batean euskarazko aisialdia sortu eta kudeatuko zuen enpresa bat sortzeko bidea egin zuen Fernandok.

Udal bakarretakoa izango da Eibarko eredu horri jarraitu ziona. Enpresa ho-



Familiatan euskara gehiago erabiltzeko antolatutako kanpaina, «biberoiaren kanpaina»

rrek oraindik zerbitzua ematen dio Eibar-ko Udalari aisialdiko gaietan. Hasierako udako eskaintza horretaz gain, beste ekin-tza asko antolatu ohi ditu: *Afariketan larunbatetan, Gaztetan, Ludoteka...*

Ez zion sekula lan-eremu horretan eragiteari utzi. Urte batzuk beranduago ere *Errota gaztelekua* bezalako proiektuak hezurramitu zituen, betiere etxean edota eskolan jaso eta erabiltzen zen euskarari erabiltzeko esparru berri eta gozagarriak eskaini nahian.

Familia. Laster jabetu zen Fernando familiak ere izugarrizko indarra zuela hizkuntzaren transmisioan, eta, beste hainbat udaletako euskara-teknikarirekin batera, «Transmisio kanpaina» deitu zitzaiona egosten jardun zuen.

Ezaguna egin zen Euskal Herrian zehar «biberoiaren kanpaina» deitu zitzaiona, guraso euskaldunei «Eman zeurea» (ama bat umeari bularra emanez) eta guraso erdaldunei «Dale lo que no tienes» (aita bat umeari biberoia emanez) izenburuekin gauzatu zena. Komunikabideetan oihartzun handia lortzeaz gain, ikaste-



...eta kitto aldizkariaren 1. zenbakia

txez ikastetxe «tertuliak» antolatu ziren, gurasoei kanpaina azaltzeko eta haien beharrezan neurrira prestatutako euskarazko eskolak eskaintzeko.

Euskaltegiekin ere kanpaina ongi uztartu behar izan zen, eta hurrengo ikasturte-etan ikasle asko euskaltegiratzea lortu zen. Fernandok lan handia egin zuen egitasmo horrek indarra har zezan.


Komunikabideak. Edozein kasutan, komunikabideetan euskararen presentzia handitzea izan zen Fernandoren lan-eremu kuttunena.

Adibidetzat *...eta kitto!* aldizkaria bera izan daiteke. Izan ere, Udalean irailean lanean hasi, eta abenduan jada argitaratua zuten lehendabiziko zenbakia. Euskarazko lehendabiziko hilabetekarietako bat izan zen, egunkari formatuan argitaratzen eta kioskoetan banatzen zena.


Beste hainbat egitasmoren sustatzaile ere izan zen Fernando, *Euskara merkataritzara* edo *Kirola euskaraz* kasu. Horrelako egitasmotan beste hainbat udaletako euskara-teknikariak izan zituen lankide, baina beti zegoen presente eta ideiak ematen. Lankidetzaz horri forma ematen eta elikatzen lan handia egin zuen Fernandok

UETS (Udaletako Euskara Teknikarien Sarea) osatu eta bere urterik emankorrenetan, gogor egin zuen lan, administrazio langile bati suposatzen zaizkion eginkizunetatik haratago, udaletako lana ongi bideratzeak eskatzen zuena bilatu nahian.

Eibarko euskara. Bada, ordea, lan-eremu bat Eibarko Udaleko euskara-saila beste guztietatik bereizi duena. Gehienek erreparatu diote, gutxi edo gehiago, herriko euskarari, baina seguruenik ez da egongo beste udalik herriko euskararen inguruan Eibarkoak adina azterketa eta argitalpen egin dituenik.



Eibarko historia: gutxiespenaren historia liburuaren azala



Eibarko Hiztegi Etnografikoa liburuaren azala



Eibarko euskara: gure hizketaren doinu eta berbak liburuaren azala



...eta kitto elkartearen sorrera bultzatu zuen taldea

...ETA KITTO!

Guztiak Ego Ibarra izenburupean jasota daude, Eibarko Udalak herriko memoria historikoa berreskuratzeko eta ikertzeko batzordearen web-orrian: www.egoi-barra.com.

Fernandok ez zuen liburu horietako (20 inguru) bakar bat ere, osorik behintzat, berak idatzi, baina ia guztien eragile izan zen. Gai bakoitzerako pertsona egoikiak biltzea eta lanean jartzea izan zen haren lanik oparoenetako bat.

Udalean hasi eta segituan heldu zion baita ere euskararen alde eragingo zuen sare sozial bat sortzeari. Maite zuen sare hitza. Udalak egiten zuen ahaleginaz gain, euskaldunen nahia eta garaiko beharrei erantzungo liokeen mugimendu sozial berri bat zuen buruan, eta euskara-elkarte bat sortzeko ahaleginean sartu zen buru-belarri.

Beste hainbat herritan sortzen ari ziren elkarteak bidelagun, pentsaera desberdi-



...eta kitto elkartean lanean

neko eibartar euskaltzaleak bildu zituen, geroago, 1992ko apirilean, eratu zen ...eta kitto! euskara-elkartea sortzeko, bandoak zioena betetzea ipartzat hartuz (*www.eta-kitto.com*).

Bide horretan, 1991n soziolinguistikako jardunaldiak antolatu zituen, eta bertaratutako gazteak animatu zituen euskara-elkartearen egitasmora. Ezin konta ahala bilera egin zituen proiektua bati eta besteari azalduz, animatuz, konbentzitzen... Urte zailak ziren ideologia politiko desberdinetako euskaltzaleak proiektu bakar batean lanean gustura jartzeko. Fernandok proiektuari, ordu asko emateaz gain, legitimitatea eman zion, hain zaila zirudien hura lortzeko.

Harrezkero, ...eta kitto! elkartea haziz joan zen, bai bazkideei zegokienean, 700 bazkide inguru izatera arte, eta bai prestatzen zituen egitasmoei zegokienean ere.

Jaio eta hilabetera, 1992ko maiatzean, Udaleko euskara-zerbitzuak 1988tik 1991ra arte argitaratu zuen *...eta kitto!* hilabetekariaren lekukoa hartuz, bere ikur nagusia izan den *...eta kitto!* aldizkaria argitaratzen hasi zen elkartea. Aldizkariaren sustatzaile nagusia Fernando bera izan zen eta, antolaketa-lan askotan murgilduta ibiltzeaz gain, 1992tik 2006ra arte zuzendaria izan zen, «hori baino gehiago, bera zen gerente, ideologo, koordinatzaile...», eta kitto!ko langileek gogoratzen dutenez. *...eta kitto!* aldizkariko lan bati eman zitzaion Rikardo Arregi kazetaritza-sariaren I. edizioko sari bat, herri-aldizkariei zegokiena.

Aldi horretan, DIN A4 formatuko eta 20 orrialde zituen hamaboskaria banatzen zen euskaldunen bat zegoen etxebizitza guztietara. 1994an astekari bihurtu zen *...eta kitto!* aldizkaria, 6.000 ale banatuz astero-astero. 2007. urtean, 32 orrial-



Badihardugu elkartearen sorreran

de eta koloreak ere badituen eta 8.000 ale banatzen dituen astekaria da *...eta kitto!*


Aldizkariak belaunaldi berriak ere sortu zituen, eta harrezkeroztikakoak dira *Txikitto!* (Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutakoa) eta *Gaztekitto!*, gazteenzako gehigarri berezia.

Aldizkarietz gain, euskaltzaleen arteko gogoak asetzera eta euskaldunak erakartzea helburu zuten egitasmo asko asmatu eta egin ditu elkarteak. *Berbia Emon* programa (eskola-orduz kanpo herrian antolatzen di-

ren jarduerak euskalduntzeko programa), gazteentzako bertso-jaialdiak, merkataritzan euskara sustatzeko programak, euskaldun berriek euskara erabili ohi dutenekin mintzapraktika egiteko *Berbetan* egitasmoa, kultur emanaldiak, hitzaldi-zikloak, *Harixa emoten* (literatura-tertuliak)...

Elkarte baten eraginak eta biziraupenak bere autonomiarekin zerikusirik handia duela oso gogoan zuen Fernandok, eta beti saiatu zen, *...eta kitto!*k Udalarekin zuen hitzarmenez gain, finantzabide propioak





sortzen. Horien adibide dira enpresetan euskara-planak egiteko *Ardatza* proiektua (adibidez Eibar KEren euskara-plana bideratu zuena), bide laburra izan zuen Biltoki kafe-antzokia edo Urko Diseinu eta Komunikazioa proiektua.

Komunikabideak zituen gogoko, eta herriko irratietan euskarazko saioak antolatu zituen Eibar.org taldeko kide ere izan zen, eta azken urtean bere bloga ere sortu zuen. Gaixotu ondoren ere, buruan ibili zituen ikusi ezingo dituen beste hainbat proiektu, Debabarreneko telebista kasu.

Ohiko kolaboratzailea izan zen, baita ere, *Argia* astekarian, *Egunkaria* eta *Berria* egunkarietan, *Jakin* eta *Bat* aldizkarietan eta Herri Irratiko eta Euskadi Irratiko hainbat irratsaiotan, besteak beste.

BADIHARDUGU

Oso bere kezka zuen Eibar inguruko euskalkia sustatzea. Bere hizkera zen, eta euskara berreskuratzeko lanaren zati garrantzitsutzat zeukan. Berak askotan zioen euskara afektiboa zela efektiboena, norberaren hizketa-molderik gertuko-

ena eta kuttunena zela hiztun aktiboa eta praktikoa izateko biderik egokiena.

Udaletik ere, ikusi dugun modura, lan asko egin zituen norabide horretan, baina hori nahikoa ez eta, 2000. urtean, Badihardugu elkarte (www.badihardugu.com) sortu zuten Debabarreneko hainbat euskaltzalek, tartean Fernandok.

Serafin Basauri bere lagun, lankide eta elkarteko lehendabiziko lehendakariak Fernandoren bitalitatea nabarmentzen du; «makina» bat zen lanean, eta, eskualdean herri-hizkeraz kezkatuta zeuden euskaltzale asko bilduz, elkarte sortzea lortu zuen.

Eskualdeko herri gehien artean, 1999. urtearen amaieran giltzarri izan den lana kaleratu zen, Koldo Zuazoren *Deba Ibarreko Euskeria* liburua. Lan horrek, eskualdeko herriak euskararen inguruan batzeaz gainera, lehen falta zen oinarri teorikoa ekarri zuen.

Elkarte horretan ere ez zen bera ikerketak egiten eta liburuak idazten zituena, baina bai izan zen lanak egin zitezen bidea errazten aritu zena, jendea bilduz, baliabideak lortuz...

UN FUTURO PARA NUESTRO PASADO

claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas

José M. Sánchez Carrión
"Txepetx"



Eibartik Euskal Herrira

Jose Maria Sanchez Carrión, *Txepetxen Un futuro para nuestro pasado* liburuaren azala


Eibartarra zen Fernando, baina mundu asko ere bazuen, eta oso argi zuen euskarak Eibarren aurrera egiteko, Eibarren egin beharrekoa egiteaz gain, nazio-ikuspegi eta praktika ere behar zituela, bai herriz herri egiten zenak nazio linguistikoa osatzen zuelako eta bai nazio-mailan egiten zenak herrikoa elikatzen zuelako ere.

ADOREZ ETA ATSEGINEZ

Jose Maria Sanchez Carrión *Txepetx* soziolinguistaren *Un futuro para nuestro pasado*. *Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas* liburuak eragin handia izan zuen hainbat euskal-

tzaleren artean, bereziki 80ko hamarkadaren amaieran eta 90ekoaren hasieran. Ugari izan ziren oinarri horien inguruan emandako hitzaldi eta ikastaroak. Azpimarratzekoa da euskara-elkarteen sorreran eta berariaz euskara-elkarteak sortzen jardun zuten pertsona sustatzaileetan izan zuen eragina.

Euskara-elkarteen sortzeko eta garatzeko lanetan izandako eraginaz gain, ordea, Julen Arexola-Leiba arrasatear euskaltzalearen ahaleginaren ondorioz, Txepetx Euskal Herrira etortzea lortu zen eta haren oinarri teorikoak garatzeko eta hedatzeko Adorez eta Atseginez mintegia sortu zen. Fernandok berez ere bazuen



teorizaziorako joera, eta mintegian eroso aritu zen, praktikan egiten ari zena marko teoriko batean azaldua ikusten zuelako eta oinarri teoriko horrek energia ematen ziolako eguneroko praktika elikatzeko.

«NORMALKUNTZAINDIA»

Oinarri teoriko horiek eta eguneroko praktikak emandako ikuspegiarekin, Fernando Muniozgurenek «Normalkuntzaindia» izena eman nahi izan zitzaion erakunde bat sortzea proposatu zuen (Iñaki Arrutirekin batera) 1993an, Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen X. urteurrena zela-eta Arrasaten egin ziren herrietako euskara-elkartei buruzko jardunaldietan.

Ideiaren muina zen euskara-elkarteek herrietan erakundeen arteko elkarlanean sortu zuten euskara berreskuratzeko dinamika berri hori nazio-mailara eramatea. «Euskararen normalizaziorako entitateen arteko elkarlana» izeneko ponentziaren bidez, Euskaltzaindiak hizkuntzaren corpusa gidatzeko duen legitimitatearen an-

tzera, hizkuntzaren statusa gidatzekoa izango lukeen erakunde bat sortzeko oinarriak jaso ziren.

Proposamenak oihartzun eta harrera ona izan zuen, oro har. Hala ere, bere horretan ez zen hezurmamitu, nahiz eta bertan jasotako hainbat ideia geroago garatu ziren hainbat proiektutan presente egon zirela esaten zuen Fernandok berak.

EUSKARA ELKARTEEN TOPAGUNEA

Ez zen horregatik eskuak gurutzatuta geratu Fernando. Buru-belarri ziharduen lanean ...eta kitto! euskara-elkartean eta gero eta argiago zuen herrietan ugaritzen ari ziren euskara-elkarteek mesedegarri izango zuketela elkarlanean jardutea.

Gizarte zibilean zuen oinarri eta konfiantza Fernandok. Horregatik zen gizarte-mugimenduen zale. 1997ko apirilaren 27ko *Argian* idatzitako artikulua batean ikus daiteke gai horren inguruan berak zuen pentsatzeko era:

Ezinbestekoa zaigu gizarte-ekimenari darrion aberastasuna eta gaitasuna hobeto baloratzea, gehiago prestijiatzea eta biziki estimatzea, beste edonon egingo litzatekeen moduan, gizartearen eskuartzea balorea baita. Desioak ez zapuzteko baliabideak eta baliabideak behar ditu euskalgintzak, geure etxean gizartearen periferian eta eskale gisa ibil ez gaitzen.

Bi urteko lan astunen ondorioz, 1996ko ekainaren 15ean osatu zen Euskara Elkarten Topagunea Durangon. Talde eratzailan, noski, Fernando aritu zen, bihotz eta anima. Oraingo honetan, ordea, eratzeaz gain, lehendakari izatea egokitu zitzaion lehendabiziko hiru urteetan.

Lan nekoso eta distirarik gabea egitea egokitu zitzaiona hor ere Fernandori. Milaka ordu eta kilometro egin behar izan zituen, euskara-elkarteen federazioa izango zena barrutik gorpuzteko eta eragingarri bihurtzeko. Hamaika lan egin zuen: herri-aldizkarien arteko harremana sendotu, gazteentzako proiektuak trukatzeko bideak jarri, *Mintzalaguna* bezalako egitasmoak ezagutarazi, hitzarmengintzan oinarritutako egitasmoak indartu, eus-

kalgintza Bizkaia aldean sustatu, Kultur Errota bezalako ideiak egia bihurrarazi...

Topagunea hasierako 32 elkarte bazkidetik 87 izatera pasatu da, eta elkarte horietan 15.000 pertsonatik gora dira bazkide direnak. Hedabideen sailean kasu, 5 irrati, bi telebista eta 34 aldizkari daude federatuta, euskara-elkartekin batera 300 kultur jardueratik gora antolatzen ditu urtean, mintzapraktika egitasmoan ia 2.000 pertsona dabilta...

Etxea barrutik atontzeaz gain, ordea, Topagunearen ordezkari izatea ere bere bizkarrean eraman behar izan zuen. Horrela



Fernando Euskara Elkarten Topagunearen hasieran

jardun zuen bai administrazio guztien aurrean, bai gizarte-mugimenduekin harremanetan, bai 1997an osatu zen Euskara-ren Gizarte Erakundeen Kontseiluaren sorreran eta bertako zuzendaritzan ere, hainbat urtez.


ZARAUTZ

Eibartik kanpo lanean aritutako beste eremu bat Zarautz bera da. Ainitze alaba Salvatore Mitxelena ikastolan ikasle izanik, ikastola barruko aldizkaria sortzeko lanetan ere jardun zuen. Ondoren, ikastolak hurrengo urte batzuetarako plan estrategiko bat egin behar zuela eta, han ere bai. Ikastolatik ateratzera zihoazen gazte-
txoek batxilerrak eta heziketa-zikloak ikasteko aukera izan zezaten, Oteiza lizeoaren sorreran ere jardun zuen, 2004ko Kilometroak antolatzeko lanetan...


...*eta kitto!* aldizkarian izandako esperientzia oinarri hartuta eta kazetaritza ikasten ari ziren gazte batzuek euskarazko aldizkari bat sortu nahi zutela aprobetxatuz, buru-belarri aritu zen *Txaparro* herri-aldizkariaren sorreran ere (elkartea

sortu, proiektua prestatu, diru-laguntzak eskatu...). 2001. urtean aldizkaria kalean zegoen. Bera izan zen elkarteko lehendabiziko lehendakaria.

Hori gutxi ez eta, Zarautzko euskara eta ondarea biltzeko *Zarautz hizketan* egitasmoaren lan-taldean ere parte hartu zuen. Berak egin zizkien pertsona nagusi askori elkarrizketak. *www.hizketan.org*.



Zarautz hizketan liburuaren azala




Euskararen herritik...

...eta kitto! aldizkariak 2006ko
uztailaren 14an atera zuen zenbakia

Fernando Muniozguren 2006ko uzta-
laren 8an hil zen. Hiletarik ez, baina
berak eskatutako moduko omenaldia,
goxoa, apala eta ahal zen neurrian alaia
egin zitzaion Eibarko Txaltxazelain, hileta
zibilak egin ohi diren tokian. Gauza gehia-
go esan daitezke Fernandoz, baina bere
lagun izandako hainbatek han esandakoez
definitzen dute ondoen bere bidaia:

Badihardugu Euskara Elkartearen izenean,
Asier Sarasuak hitz hauek eskaini zizkion:

Uste dot Fernandokin biharrian jardun
dozuen guztiok jakingo dozuela zer dan
eskumako irudixa. Holaxen gogoratzen
dot beti Fernandon agendia: ideaz jositta,
eta papertxo horiz gañezka; rotuladore
baltzaz eta bere letra txikixaz betetako



Fernandok ideiak biltzeko
hainbeste erabiltzen zuen
post-itaren erreplika

ehundaka post-it hori. Batari deitu biha-
rra, bestiari esan, hirugarrenari galdetu,
laugarrena konbenzidu...

Fernando ez zan geldirik egotekua, eza-
gun da. Beti zekan proiektu barriren bat
prest. Baiña hori ez da zailena. Proiektuak
aurrera etartzeko bihar dan indarra, pa-
zientzia eta gaittasuna be bazekazen. [...]

Fernandon papel horitxuetan hainbat
berba «fetitxe» be ikusten dittut: sinergia,

euskara afektiboa, elementu biderkatzailiak, «laissez faire»... Eta eragille. Fernando bai zala eragillia. Azken 15-20 urtiotan gure inguruan gertatu diran gauza asko, zelan ez, desbardiñak izango ziran Fernandorik barik, eta seguru nago, datozen 15-20 urtiotan danon artian gauzatuko doguzen proiektuetan be, hantxe egongo dala Fernando bultzaka, bizkarrian igarriko dogula beran akulua. [...]

Pako Aristi bere lagunak, berriz, «Lagun bat joaten zaigunean» poesia irakurri zuen:

Lagun bat joaten zaigunean
ez dakigu nola jarraitu hurrengo esaldia.
Zer esan behar dugu,
argitara joan dela
ala argia itzali eta teloa jaitsi diotela?
Bizitza moduko esparru berri batean dagoela
ala gure bihotzetan biziko dela betiko?

Lagun bat hiltzen zaigunean
ez dakigu nola deklinatu hurrengo aditza.
Berak dena eman zuelako
eman nahi genioke guretik dena;
guretik hoberena eskaini nahi genioke
bere hoberenaren edertasunarekin
aberastu gintuenari.

Ordea, isildu zaigunak entzungo al ditu
gure jardunak?

Fatalitateak ez du hitzik maite,
baina guk bai,

guk maite ditugu hitzak,
eta horien artean, Fernandoren ekimenak
jarraituz,
euskarazko hitzak beste guztien gainetik:
maite ditugu hitzak
maite ditugunen izenak esateko besterik
ez bada ere.

Lagun bat desagertzen zaigunean
jarri zaitezte erne:
gutxien uste duzuenean, deblauki,
bihotzean agertuko zaizue eta,
aditzak deklinatzen laguntzeko,
esaldiak nola jarraitu erakusteko.
Niri horixe gertatu zait Fernando
Muniozgunekin:
ezagutu ditudan pertsona maitagarrien
zerrenda osatzera pasa da,
eta asko poztu naiz berak hor egotea onartu
duelako.

Ekitaldia berak hain maite zuen Mikel
Laboaren kantua honekin amaitu zen:

Xoxo beltz bat banuen
kaiolan sartua.
Egun batez neguen
hil zen gixajua.
Lurpian sartu nuen
zelaian xokuan.
Eguna argitzen denian
xolu hartan, xolu hartan
xoxuen kantua.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- ...*eta kitto!* aldizkariari. 566.zenbakia. 2006-VII-14
- ...*eta kitto!* Euskara Elkarteko Jasone Bilbaori, Jose Luis Go rostegiri eta Koldo Mitxelenari
- Badihardugu elkarteko Serafin Basauriri eta Asier Sarasuari
- Eibarko Udaleko Begoña Azpiriri
- Jose Luis Bereziartua *Atxuiari*
- Aise taldeko Bittor Madinari eta Antton Iztuetari
- Iñaxi Urkiolari eta Karlos Muniozguereni
- Pili Ibaregueni eta Ainitze Muniozgueren Ibaregueni

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Avd. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 978-84-457-2760-7 (Lan osoarena)
978-84-457-2761-4

L.G.: BI - 2924-08

BIDOGUILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco